

2-3 URTEKO HAURREN GURASOENTZAKO PROGRAMA



www.etxadi.org
taldeak eginda,
Jesús de
Gangoiti Barrera
Fundazioaren
babesean

2-3 URTE



2-3 URTE

MUGITZEKO GAITASUNAK



Mugitzeko gaitasunak I

- ❖ Ez du zailtasunik etzanda, eserita, katuka, kokoriko eta zutik egoteko.
- ❖ Ez du zailtasunik ibiltzeko, bi oinekin jauzi egiten du eta hiru urte dituela oin bakarrarekin, oreka ona duela erakutsiz.



Mugitzeko gaitasunak II



- ❖ Artaziak erabiltzen ditu, bolatxoak harian sartzen daki. Atzamarren muturra hobeto erabiltzen du.
- ❖ Lateralitatea: ekintzen arabera, gorputzaren alde batek beste aldea menperatzen duela ikusten da.

ESTIMULAZIO ARIKETAK




2-3 URTE

Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak I

- ✓ Lurrean etzan eta segundo batzuetan ez mugitu, gero altxatu eta korrika egin, berriro etzan, etab.
- ✓ Buruz behera etzan eta paperei putz egin.
- ✓ Buruz gora etzan eta norbere gorputzaren inguruan bira egin.



Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak II



- ✓ Kartoizko kaxekin tunel bat egin eta herrestan igaro.
- ✓ Lurrean bata bestearen aurrean eseri, eskuetatik heldu eta indarrez tira egin, aurrerantz eta atzerantz.
- ✓ Altuera desberdinetako kuboetan eseri.
- ✓ Eserita ibiltzera jolastu.

Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak III

- ✓ Lurrean oztopo txikiak ipini (ez oso garaiak) eta gainetik jauzi egin.
- ✓ Oinetako bakar batekin, galtzerdi bakar batekin ibili.
- ✓ Belaunak tolestuta ibili.
- ✓ Ogi-mamiak edo txitxirioak bota eta oinez gabiltzan bitartean jaso.



Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak IV



- ✓ Kokoriko ibiltzen ahalegindu, berdin da lurrera erortzen badira.
- ✓ Kokoriko daudela, paperak, arkatzak, zotzak... jaso.
- ✓ Eskuak aulkiaren jarlekuaren gainean ipinita, igo eta jaitsi.
- ✓ Animalien jarrerak imitatu.

Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak V

- ✓ Aulkien ilara jarri eta horien azpitik katuka igaro.
- ✓ Eskailerak katuka igo.
- ✓ Besoen eta hanken jarrerak imitatu (bainua hartzean).
- ✓ Korrika egin.
- ✓ Begiak eta ezpainak itxi eta ireki.



Mugitzeko gaitasunak sustatzeko ariketak VI



- ✓ Ura ahoarekin hartu eta askatu.
- ✓ Masailak puztu eta hustu.
- ✓ Mihia: jatearen itxurak egin eta miazkatu; mihiarekin zarata desberdinak egin, etab. (jatorduan).

GAITASUN KOGNITIBO- LINGUISTIKOAK



2-3 URTE

Gaitasun kognitibo-linguistikoak I

- ❖ Trantsizio-unea, hizkuntza menperatzen ez denetik hizkuntza eskuratzen denera.
- ❖ Hiztegia azkar bereganatzen du (1000 eta 2000 hitz bitartean erabiltzen ditu). Giroaren eta jasotako estimulazioaren garrantzia.



Gaitasun kognitibo-linguistikoak

- ❖ 2 urte: inguruko guztiari buruzko jakingura, jakiteko, ingurua ezagutzeko nahia.
- ❖ 3 urte: gauzek zertarako balio duten jakiteko beharra, ingurukoa ezagutu eta ordenatzeko jakingura. Helduak imitatzea gustatzen zaio.




ESTIMULAZIO ARIKETAK



2-3 URTE

Gaitasun kognitibo-linguistikoak sustatzeko ariketak I

- ✓ Zenbakiak esan: 2 esan eta berak errepikatu, 3, 4 eta horrela etengabe.
- ✓ Putz egiteko ariketak.
- ✓ Oinarrizko kontzeptuak sartu: goian-behean, barruan-kanpoan, aurrean-atzean, handia-txikia (edozein unetan).
- ✓ Atzamarrak zenbatu.
- ✓ Ipuinak irakurri.



Gaitasun kognitibo-linguistikoak sustatzeko ariketak II



- ✓ Koloreak irakatsi.
- ✓ Logika-ariketak: bi urte eta erditik aurrera, osagaiak ezaugarrien arabera lotzea (dibertsio-uneak).
- ✓ Neurrien arabera ordenatzea (dibertsio-uneak).

Gaitasun kognitibo-linguistikoak sustatzeko ariketak III

- ✓ Kalkulu-ariketak: zenbakia eta oinarritzko kantitate-nozioak ezagutzea.
- ✓ Asko-gutxi, beteta-hutsik edo horien kantitate-baliokideak, guztia edo ezer ez (edozein unetan).
- ✓ Ariketa geometrikoak: oinarritzko irudietarako egindakoak.
- ✓ Kokapena espazioan, gorputzarekin adieraziz.



Gaitasun kognitibo-linguistikoak sustatzeko ariketak IV

- ✓ Grafia: lehenengo zirriborroak marraztu eta egitea.
- ✓ Behaketa-ariketak: gelaren txoko batean dagoena behatu eta seinalatu edo izendatu; abesti bat edo ipuin bat arretaz entzun.
- ✓ Oroimen-ariketak: animaliei edo pertsonei izenak eman eta gero aldatu, horrela deitzen ez direla esan dezan (ohera joan aurretik).
- ✓ Jolas askea, bat-batekoa.



GAITASUN SOZIOEMOZIONALAK



2-3 URTE

Gaitasun sozioemozionalak I

- ❖ Gizarte-jarreretan aurrerapen handia.
- ❖ 2 urte: independentzia lortzen ari da, baina zainketak eta laguntzak behar ditu oraindik; komunera joan behar duela ahoz esan dezake, baina garbiketa irregularra da oraindik. Egun osoan kontrolatu ohi du.



Gaitasun sozioemozionalak II



- ❖ 3 urte: independentzia handiagoa, ez dago amari eta aitari hain lotuta; gizarte-harreman gehiago bere adinekoekin, jolastean txandak errespetatzen ditu; gainerakoen laguntza nolabait onartzen du; esfinterrak kontrolatzen hasten da edo kontrolatzen ditu gauez eta egunez.

ESTIMULAZIO ARIKETAK



2-3 URTE

Gaitasun sozioemozionalak sustatzeko ariketak I

- ✓ Norbere burua ezagutzea: gorputzeko atalak izendatzea berak seinalatzeko; bere izena galdetu, jantzi batzuk non dauden galdetu berak seinalatu ditzan.
- ✓ Noizean behin etxean zeregin txikiak agindu.
- ✓ Jantzi: hizkuntzaren atalean ikasitako kontzeptuak aprobetxatu arropak behar den moduan jantzi ditzan.



Gaitasun sozioemozionalak sustatzeko ariketak II



- ✓ Esfinterren kontrola: siestaren aurretik eta gauean ohera joan aurretik komunera eramán (3 urte inguru dituztela, haurrek gaueko eta eguneko garbitasuna lortzen dute).
- ✓ Elikadura: zapiak erabiltzen, jateko espazio jakin bat erabiltzen, behar den moduan esertzen, eten gehiegi egin gabe jaten, etab. irakatsi.
- ✓ Gizarte-harremanak: jendea agurtzen irakatsi, eskerrak ematen eta barkamena eskatzen irakatsi, beste haur batzuekin jolastera bultzatu.

2-3 URTE

BIBLIOGRAFIA

- Vidal, M. eta Díaz, J. (1990). *Atención Temprana. Guía práctica para la estimulación del niño de 0 a 3 años*. Madrid: CEPE.
- Arranz, E. (2004). *Familia y desarrollo psicológico*. Madrid: Pearson.
- <http://www.miembarazo.com>
- http://www.carm.es/ctra/cendoc/publicaciones/2003_Calidadestimular.PDF (estimulizaerako irizpideen gida, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat)



AMAIERA



2-3 URTE